



ANIMALIAK EZAGUTZEN

MUNDUKO ANIMALIAK



KOALA

PANDA
HANDIA



JAGUARRA

HIPOPOTAMOA



PINGUINO
ENPERADOREA

JIRAFA



ANIMALIAK EZAGUTZEN

KOALA



KAIXO, KOALA NAIZ.

Hemendik oso urrun dagoen lurralde batean jaio nintzen, Australian. Horregatik ez nauzu inoz zure inguruan ikusi. Baina noizbait Australiara joaten bazara, bertan aurkituko nauzu. Badakizu nolakoa naizen? Burua eta sudurra handi-handiak ditut. Begiak berriz, txikiak. Horregatik ez dut ondo ikusten, baina usaimena oso garaturik daukat.

TAMAINA ETA IZAERA

Nire ilea grisa da. Gorputza eta belarriak iletsuak ditut, pelutxe maitakor baten modukoak. Baina adi, zuhaitzen goialdean lasai egotea gustatzen zait eta inork ez molestatzea nahiago dut. Badakizu zein tamainatakoa naizen? Ez naiz elefantea bezain handia, ezta xomorro txiki bat. Gehienetan txakur ertain baten tamaina dut. Baina nik ez dut buztanik.



ELIKADURA ETA BESTE OHITURAK

Hostoak jaten ditut gehien bat. Nire hosto gogokoenak eukalipto hostoak dira. Mmmm bai onak!

Nire bizitzako denbora gehiena zuhaitzen goialdean pasatzen dut eta beste zuhaitz batera pasatzeko bakarrik jaisten naiz. Egunean hogeit hamar ordu egiten dut lo.

Lo-kuluxka egitera noa orain, ondo lo egin!

AZKEN GALDERAK

Ikusi dugunez, kanguruarekin batera, koala Australiako animaliarik ezagunenetako bat da. Ezagutzen al duzu Australian bizi den beste animalia bat?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

PANDA HANDIA



KAIXO, PANDA HANDIA NAIZ.

Animalia ugaztuna naiz, hartzaren familiakoa. Nire jatorria Txinan dut. Txinara etortzen bazara, jakin dezazula panda mota ezberdinak aurkituko dituzula. Denak ez gara berdinak. Leku bakoitzeko pandek itxura ezberdina daukagu. Ni, adibidez, Sichuaneko panda naiz. Ile zuri-beltza daukat. Tamaina handiko animalia naiz, oso gizona eta indartsua. Begi txikiak ditut eta sei atzamar hanka bakoitzean.

QINLING PANDA, BESTE PANDA ESPEZIEA

Qinling espezieak, berriz, ile marroia du. Ni baino txikiagoa da eta ez da oso gizona, baina oreka eta trebetasun bikaina du zuhaitzen gainean.



OHITURAK ETA INGURUNEA

Batzuetan zomorro txikiak edo arrautzak jaten baditut ere, gehien bat belarra jaten dut. Gehien gustatzen zaidana banbu kanabera da. Egunean berrogei kilogramo banbu jaten ditut. Horretarako hamalau ordu behar ditut. Beraz, egunaren denbora gehiena jaten ematen dut. Eguzkitan jartzean eta lo egitea ere pila gustatzen zait. Mendialdeetan bizi naiz. Normalean animalia bakartia naiz eta neguan nire kobazuloan sartu eta lo egiten dut udaberria iritsi arte.

Zer da hori? Elur maluta bat! Orduan nire kobazulora noa, udaberrian ikusiko dugu elkar.

AZKEN GALDERAK

Bazenekien panda mota ezberdinak badirela?
Eta panda moduan, barazkiak jatea gustatzen zaizu edo haragiari hortza sartzea nahiago duzu?

Hurrengora arte, agur.






ANIMALIAK EZAGUTZEN

JAGUARRA



KAIXO, JAGUARRA NAIZ.

Mexikon jaio nintzen oihan berde eta heze batean. Hemen hazi eta ehizean ikasi nuen nire bi anai-arrebekin batera. Trebetasun nahikoa izan nuenean, familia agurtu eta nire kabuz bizitzera joan nintzen. Animalia bakartia naiz beraz. Argentinatik Estatu Batuetara, nire familia Amerikako hainbat lekutan hedatua dago. Izan ere, kontinenteko felido handiena, sendoena eta indartsuena naiz.



¿BAINA ZER DA FELIDO BAT?

Ba katua, lehoia edo pantera bezala, ni felido bat naiz. Lau hanka ditut eta buztan luzea nire gorputzaren atzekaldean. Nire azala laranja-horixka da eta orban beltz ugariz estalita nago. Nire sabela eta lepoaren barnekaldea zuria da (baita orbanek beteta ere). Ni horia ba naiz ere, oihanetik paseatzen jaguar beltzak ikusi ditut.



BIZI-EREMUA ETA TREBETASUNAK

Oihanak gogokoak izan arren, baso lehorragoetara ere erraz moldatzen naiz. Badakizue zer? Ura ez dit beludurrik ematen, igerilari aparta izateagatik ezaguna naiz. Eta kontuz, ugaztunen artean nire hozkada indartsuenetako da.

Beno ba, igerira noa orain, hurrengora arte!

AZKEN GALDERAK

Jaguarrari bezala, gustatzen al zaizu zuri uretan igeri egitea?
Eta bazenekien katua, lehoia eta jaguarra ahaideak direla?


Hurrengora arte, agur.





ANIMALIAK EZAGUTZEN

HIPOPOTAMOA




KAIXO, HIPOPOTAMOA NAIZ.

Animalia handia naiz, lodia eta indartsua. Nik mila eta bostehun kilogramo pisatzen ditut eta badira ni baino handiagoak. Begi eta belarri txikiak ditut. Nire azala leuna da. Hanka motzak ditut, horregatik astuna edo baldarra naizela ematen du. Hala ere, nahiko azkarra naiz. Burua handia dut eta ahoa zabala.

GURE HABITATA ETA OHITURAK

Animalia erdi-urtarra naiz. Hau da, uretan egotea beharrezkoa egiten zait. Han ematen dut ba egunaren denbora gehiena. Afrikako hanbait ibai eta aintziretan bizi naiz. Egunez uretan nago atsedean hartzen; iluntzean belarra jatera irteten naiz. Baina ezin naiz kanpoan gehiegi egon, lehortu egiten naiz eta azkar uretara itzuli behar dut.



HIPOPOTAMO TALDEAK

Animalia taldekoia naiz. Nire taldea berrogei lagunek osatzen dute. Horrela, oso arraroa da hipopotamo bat bakarrik ikustea.

Eguzkia badoa eta ni gosetuta nagoela, belarra bila noa. Agur.

AZKEN GALDERAK

Bazenekien hipopotamoa ezin dela denbora luzez uretatik kanpo egon?
Eta ikusi duzu inoz bideo batean hipopotamo bat korrika?

Hurrengora arte, agur.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

PIGUINOA

KAIXO, PINGUINOA NAIZ.

Zelanda Berrian jaio nintzen, aitak nire arrautza bi hilabetez heuren sabeleko poltsatxoan errun ondoren. Bitartean, amatxo habia utzi eta arrantzara joan zen janari bila. Horrela, pinguino enperadore handia bilakatu nintzen.

Itsas hegaztia naiz. Hau da, lumak eta hegalek ditut. Hala ere, ezin dut hegan egin. Baina uretan bizitzeko egoitua nagoenez, igerilari azkarra naiz. Nire hegalekurpeanigeri egiteko balio didate. Lehorrean berriz, nahiko traketsa naiz, dilin-dalan moduan ibiliz. Gutxi gora bera, nire bizitzaren erdia lehorrean ematen dut eta beste erdia itsasoan.

NIRE ITXURA, ELIKADURA ETA TALDEA

Luma zuri-beltzak ditut, moko sendoa eta isatsa motza. Hankak motzak ditut, sabela ondoan, uretan hobeto mugitzeko. Nire familian 18 espezie ezberdin daude. Eta gure tamaina ere ezberdina da. Gu gara pinguino handienak, Pinguino Enperadoreak. Eskezierik txikiak berriz, esne botila baten tamaina eta pisu adina du. Pinguino gehienek krill, arrain eta txipiroiak jaten ditugu. Batzuk planktona ere jaten dute. Oso animalia taldekoiak gara. Gure taldea kolonia deritzo.



BIZI-EREMUA

Batez ere Hego hemisferioan bizi gara, baina zergatik ez dago pinguinorik Ipar poloan? Ba gure jatorria Australia eta Zelanda Berria inguruan izan zen. Zabaltzen joan ginen heinean, gure gorputza inguru epeletan bizitzeko moldatu behar izan genuen. Orokorrean pinguino txikiak gune beroetan bizi dira eta handienak gune hotzetan bizi ohi gara. Baina ekuadorera iritsi eta inoz ez gara ausartu Ipar hemisferiotik bidaia egitera.

Beno, ba, urpean igerira noa orain. Agur.

AZKEN GALDERAK

Ikusi duzu noizbait pinguino bat?
Eta zein gustatzen zaizkizu gehien, ekuatoreko pinguino txikiak edo Antartikako pinguino handiak?

Hurrengora arte, agur.





ANIMALIAK EZAGUTZEN

JIRafa



KAIXO, JIRafa NAIZ.

Afrikan jaio nintzen amaxoren sabelean hamalau hilabetez egon ondoren. Ugaztuna naiz beraz. Jaio eta ordu gutxira korrika egiteko prest nengoen. Hortik aurrera oso azkar hazi nintzen. Amaxorekin eta ahaidekin bizi izan nintzen talde txiki batean lehen urteetan. Gaztea bilakatu orduko, beste ar gazteekin bizitzera joan nintzen. Orain heldua naizela, bakarrik bizi naiz.

Aintzinean nire familia handiagoa bazen ere, orain zortzi espezie bereizten dituzte gizakiek: Angolar jirafa, Masai jirafa, Jirafa erretikulatua edo Nubiar jirafa, besteak beste.

NIRE BIZI-EREMUA, ELIKADURA ETA ITXURA

Sabanetan, belardietan edo baso irekietan bizi naiteke. Bertan elikatzeke hosto, lore eta fruitu ugari aurkitzen ditut, baina guztien artean akazia da nire gogokoena. Beraz, animalia belarjalea naiz. Ur asko edaten dut iturri bat aurkitzerakoan, horrela bizirik irauten dut hain lehorra den ingurune honetan. Lehorreko animaliarik altuena naiz. Nik bost metro baino gehiago neurtzen ditut. Eta gizona ez ba naiz ere, hain naiz handia zein mila kilogramo pisatzen ditudala. Ezaguna naiz nire lepo eta hanka luzeengatik. Adar itxurako bi tontor txikiak ditut, osikono deritzonak. Larruan orban bereizgarriak ditut: laranja, marroia edo ia beltza kolorekoak. Ilea berriz, krema kolorekoa dut.



GAITASUNAK ETA OHIATURAK

Koloretan ikusten dut eta entzumen eta usaimen zorrotzak ditut. Buruaren bi aldeetan, begi handi eta puztuak ditut, ikuspen biribila ematen didatenak. Mihi luze-luzea dut, more iluna. Hau bai berezia, ezta? Gauean ez naiz lotara joaten. Hamar minutuko lo-kuluxka txikiak egiten ditut egunean hainbat aldiz. Guztira hiru ordu lo eginez! Gehienetan zutik egiten dut lo eta atzeten banaiz, begi bat irekita uzten dut harrapakari bat gerturatzen bada erraz ikusteko. Beno ba, ur-iturri deigarria ikusi dut hor aurrean, edatera noa ba, agur!

AZKEN GALDERAK

Jirafa modura, lo geratu al zara inoiz zutik?
Eta ba al dakizu zenbat neurtzen duen zure mihiak?

Hurrengora arte, agur.





ANIMALIAK EZAGUTZEN MUNDUKO ANIMALIAK



GALDERAK

Konta Kontari



ANIMALIAK EZAGUTZEN

KOALA



A) NON JAIO NINTZEN?

1. ZELANDA BERRIAN
2. INDIAN
3. AUSTRALIAN
4. TXINAN

B) ZEIN TAMAINAKO ANIMALIA NAIZ?

1. ZOMORROA BEZAIN TXIKIA
2. TXAKUR ERTAIN BATEN TAMAINAKOA
3. ZALDI BATEN TAMAINAKOA
4. ELEFANTEA BEZAIN HANDIA

C) ZEIN DA GEZURRA?

1. SUDUR HANDIA DUT
2. ONDO IKUSTEN DUT
3. USAIMEN GARATUA DAUKAT
4. EZ DUT BUZTANIK

D) NON PASATZEN DUT NIRE BIZITZAREN DENBORA GEHIENA?

1. BELARDIETAN
2. KOBAZULOETAN
3. ZUHAITZETAN
4. MENDI GARAIETAN

E) BOROBILDU EGIA DEN ESALDIA:

1. GEHIEN BAT BELARRA JATEN DUT
2. GEHIEN BAT HARAGIZ ELIKATZEN NAIZ
3. BANBU HOSTOAK DITUT GUSTOKOAK
4. LOREAK DITUT GUSTOKOAK

F) ZENBAT ORDU EGITEN DITUT LO EGUNEAN?

1. BOST ORDU
2. HAMAR ORDU
3. HAMABOST ORDU
4. HOGEI ORDU

ANIMALIAK EZAGUTZEN

PANDA HANDIA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. ARRAINA
2. UGAZTUNA
3. NARRASTARIA
4. INTSEKTUA

B) NON DUT NIRE JATORRIA?

1. AUSTRALIAN
2. INDIAN
3. VIETNAMEN
4. TXINAN

C) NIRE ITXURARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA GEZURRA?

1. SEI ATZAMAR DITUT
2. BEGI HANDIAK DITUT
3. GIZENA NAIZ
4. INDARTSUA NAIZ

D) QUINGLING ESPEZIA...

1. KOLORE BELTZAKOA DA
2. OREKA TXAKARRA DAUKA ZUHAITZEN GAINEAN
3. GIZENA DA
4. BESTE PANDAK BAINO TXIKIAGOA DA

E) NOLAKOA DA NIRE ELIKATZE-OHITURA?

1. GEHIEN BAT BELARRA JATEN DUT
2. EGUNEAN 10KG JANARI HARTZEN DUT
3. GEHIEN BAT HARAGIA JATEN DUT
4. EUKALIPTO HOSTOAK DIRA NIRE GOGOKOENAK


F) ZEIN DA GEZURRA?

1. GEHIENETAN TALDE HANDIETAN BIZI NAIZ
2. EGUZKITAN JARTZEA ETA LO EGITEA PILA GUSTATZEN ZAIT
3. NEGUAN KOBALUZORA NOA LOTARA UDABERRIA IRITSI ARTE
4. MENDIALDEETAN BIZI NAIZ



ANIMALIAK EZAGUTZEN

JAGUARRA



A) ZEIN KONTINENTEAN BIZI NAIZ?

1. AFRIKAN
2. ASIAN
3. AMERIKAN
4. EUROPAN

B) ZEIN DA NIRE BIZI-EREMUA?

1. BASAMORTUAK
2. OIHANAK
3. MENDI GARAIK
4. SABANAK

C) ZEIN MOTATAKO ANIMALIA NAIZ?

1. NARRASTARIA
2. FELIDOA
3. KANIDOA
4. HAUSNARKARIA

D) ZEIN DA GEZURRA? NIRE GORPUTZAN...

1. SABLEKO AZALA ILUNAGOA IZATEN DA.
2. ORBAN PILA DITUT.
3. BUZTAN LUZEA DUT ATZEKALDEAN.
4. NIRE AZALA BELTZA IZAN DAITEKE.

E) ZEIN DA GEZURRA?

1. HOZKADA INDARTSUA DAUKAT
2. URA BELDURRA EMATEN DIT
3. ANIMALIA BAKARTIA NAIZ
4. TXIKIA NINTZENEAN EHIZAN IKASI NUEN

F) NIRE FAMILIAN...

1. KATUAK, LEHIOAK ETA PANTERAK AHAIDEAK DITUT.
2. HAMAR ANAI-ARREBA BAINO GEHIAGO GARA.
3. KANADATIK ARGENTINARAINO HEDATUA DAGO.
4. OHIKOA DA ARRANTZAN IKASTEA.



ANIMALIAK EZAGUTZEN

HIPOPOTAMOA



A) NON BIZI NAIZ?

1. ASIAKO HAINBAT IBAIETAN
2. AMERIKAKO AINTZIRETAN
3. AFRIKAKO IBAI ETA AINTZIRETAN
4. AUSTRALIAKO ITSASOETAN

B) ZENBAT KILOGRAMO PISATU DITZAKET?

1. EHUN KILOGRAMO
2. EHUN ETA BERREHUN KILOGRAMO ARTEAN
3. BOSTEHUN KILOGRAMO INGURU
4. MILA KILOGRAMO BAINO GEHIAGO

C) NIRE ITXURARI DAGOKIONEZ, ZEIN DA GEZURRA?

1. AZAL LAKARRA DUT
2. AHO ZABALA DUT
3. HANKA MOTZAK DITUT
4. BEGI ETA BELARRI TXIKIAK DITUT

D) ZEIN OHITURA DUT?

1. GOIZEAN BELARRA JATERA NOA URETATIK KANPO
2. URAN EMATEN DUT GAUAREN DENBORA GEHIENA
3. DENBORA LUZEA PASATZEN DUT URETATIK KANPO
4. ILUNTZEAN LEHORRERA NOA JANARI BILA

E) ZEIN NOLAKO TALDEETAN BIZI NAIZ?

1. ANIMALIA BAKARTIA NAIZ
2. FAMILIAREKIN BIZI NAIZ TALDE TXIKI BATEAN
3. TALDE HANDIAK OSATZEN DITUGU, BERROGEI LAGUN INGURUKOAK
4. TALDE ERRALDOIAK OSATZEN DITUGU, BERREHUN LAGUNEKOAK

F) BOROBILDU EGIA DIREN ESALDI GUZTIAK:

1. ANIMALIA TRAKETSA NAIZ
2. ANIMALIA INDARTSUA NAIZ
3. LEHORREKO ANIMALIA NAIZ
4. ANIMALIA ERDI-URTARRA NAIZ

ANIMALIAK EZAGUTZEN

PIGUINOA



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

1. ITSAS UGAZTUNA
2. ITSAS ARRAINA
3. ITSAS KRUSTAZEOA
4. ITSAS HEGAZTIA

B) NOLAKOA DA DIRE ITXURA?

1. HANKA LUZEAK ETA ISATSA MOTZA DUT
2. LUMA ZURI-BELTZAK ETA MOKO ERKINA DUT
3. HANKA MOTZAK ETA LUMA ZURI-BELTZAK DITUT
4. ISATSA LUZEA ETA MOKO SENDOA DUT

C) NON JAIO NINTZEN?

1. ZELANDA BERRIAN
2. AUSTRALIAN
3. HEGOAFRIKAN
4. ARGENTINAN

D) ZEIN DA GEZURRA?

1. IGELARI AZKARRA NAIZ
2. IA BIZITZA GEHIENA URAN EMATEN DUT
3. LEHORREAN TRAKETSA NAIZ
4. EZIN DUT HEGAN EGIN

E) ZERTAZ ELIKATZEN NAIZ?

1. ARRAINAK, TXIPIROIAK ETA UR-INTSEKTUAK
2. KRILL, ARRAINAK ETA KRUSTAZEOAK
3. TXIPIROIAK ETA KRUSTAZEOAK
4. KRILL, ARRAINAK ETA TXIPIROIAK

F) BOROBILDU EGIA DIREN ESALDI GUZTIAK:

1. AITAK ERRUN ZUEN NIRE ARRAUTZA
2. PINGUINO TXIKIENAK GUNE BEROETAN BIZI DIRA
3. ANIMALIA BAKARTIAK GARA
4. MUNDU OSOAN ZABALDUTA GAUDE



ANIMALIAK EZAGUTZEN

JIRAFa



A) ZER NOLAKO ANIMALIA NAIZ?

- 1.UGAZTUNA
- 2.ARRAINA
- 3.HEGAZTIA
- 4.NARRASTARIA

B) NON BIZI NAITEKE?

- 1.SABANETAN BAKARRIK AURKITZEN NAUZU
- 2.ASIAN ETA AFRIKAN BIZI GARA
- 3.SABANAK, BELARDIAK ETA BASO IREKIETAN BIZI NAITEKE
- 4.BELARDIETAN ETA BASO ITXIETAN BIZI GARA

C) NOLAKOAK IZAN ZIREN NIRE JAIOTZA ETA LEHEN URTEAK?

BOROBILDU GEZURRA DEN ESALDIA

- 1.BEDERATZI HILABETE PASA NITUEN AMATXOREN SABELEAN JAIO BAINO LEHEN
- 2.JAIO ETA ORDU GUTXIRA KORRIKA EGITEKO PREST NEGOEN
- 3.OSO AZKAR HAZI NINTZEN
- 4.LEHENGO URTEETAN AMA ETA AHAIDEEKIN BIZI NINTZEN

D) NIRE ELIKADURARI BURUZ... ZEIN DA EGIA?

- 1.OROJALEA NAIZ
- 2.HOSTOAK ETA INTSEKTU TXIKIAK JATEN DITUT
- 3.UR GUTXI EDATEN DUT
- 4.AKAZIAK DITUT GUSTOKOAK

E) NOLAKOA DA NIRE ITXURA?

- 1.ORBAN MARROI-LARANJAK ETA HANKA LUZEAK DITUT
- 2.PISUTSUA NAIZ ETA BEGI TXIKIAK DITUT
- 3.HANKA LUZEAK ETA MIHI ARROSA DAUKAT
- 4.LEPO MOTZA DUT ETA BOST METRO NEURTZEN DITUT

F) BOROBILDU EGIA DIREN ESALDI GUZTIAK...

- 1.KOLORETAN IKUSTEN DUT
- 2.IKUSMEN ETA ENTZUMEN KASKARRAK DITUT
- 3.LO ASKO EGITEN DUT
- 4.ADAR ITXURAKO BI TONTOR TXIKIAK DITUT BURUAN



ANIMALIAK EZAGUTZEN MUNDUKO ANIMALIAK



ERANTZUNAK

KOALA

A) 3 B) 2 C) 2 D) 3 E) 1 F) 4

PANDA HANDIA

A) 2 B) 4 C) 2 D) 4 E) 1 F) 1

JAGUARRA

A) 3 B) 2 C) 2 D) 1 E) 2 F) 1

HIPOPOTAMOA

A) 3 B) 4 C) 1 D) 4 E) 3 F) 2, 4

PINGUINO ENPERADOREA

A) 4 B) 3 C) 1 D) 2 E) 4 F) 1, 2

JIRAFa

A) 1 B) 3 C) 1 D) 4 E) 1 F) 1, 4

Konta Kontari



ANIMALIAK EZAGUTZEN MUNDUKO ANIMALIAK



ESTEKAK



KOALA

<https://youtu.be/CgR4642Daul>

PANDA HANDIA

<https://youtu.be/AsGWnRpbNp8>



JAGUARRA

https://youtu.be/Z5h1Le_9Z9g

HIPOPOTAMOA

<https://youtu.be/BYnaxOn2wJ0>



PINGÜINO ENPERADOREA

<https://youtu.be/KqFB-w8riSA>

JIRAFa

<https://youtu.be/DvqYfUFaYfi>



Konta Kontari

